


Aretxabaleta,
1994ko martxoak 24

Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA



Urteko enpresaria

- Barriro k-2ra
- Kanposantu barria
- Errasti anaiak Gipuzkoako finalera



Izena: Fernando Leibar Arenaza

Ofizioa: Leibar arraindegikoa

Afizioa: Kirola eta mendia

Bizioa: Garagardoa

Misioa: Nire seme-alabak, neu baino hobeto bizitzea

- **Bideo Jokoak ala kartak?**
- Kartak.
- **Pijamaz ala barik?**
- Batzuetan pijamaz eta beste batzuetan barik.
- **Txuleta ala legatza?**
- Txuleta.
- **Zein arrain duzu gogokoen?**
- Bixigua, amorraina, etab...
- **Zergatik?**
- Ez da askotan jaten eta jaten denean ondo estimatzen da.
- **Bizitzako egunik politena?**
- Ezkondu nintzen eguna.
- **Seme-alabak zure antzik, bai?**
- Alabak bai, mutikoak gutxiago..
- **Tabernaz taberna edo mendiz mendi?**
- Mendiz mendi.
- **Egin duzun juergarik onena?**
- Asko egin ditut. Baina batenbat aitatzekotan, itsasoan ibili nintzenekoren bat.
- **Zure birtute bat?**
- Jende guztiarekin ondo konpontzen naiz, ez dut problemarik izaten.
- **Akats bat?**
- Jendearekin elkartzen naizenean, lehenengo momentuan oso txarto pasetan dut.
- **Gehien gorrotatzen duzuna?**
- Pertsona hipokrita izatea, hau da, pertsona batek gauza bat esatea eta gero beste gauza bat egitea.
- **Krisia igarten da arraindegian?**
- Ni momentuz oso ondo nabil, baina batzuetan igarten da.
- **Zela ikusten duzu krisia?**
- Nik nahiko txarto. Ez diot etorkizun onik ikusten.
- **Atxabaltako alkatea izango bazina, zer aldatu edo egingo zenuke?**
- Dendarien arazoak konponduko nituzke eta baita herritarrenak ere.
- **Intsumisioaren gainean zer daukazu esateko?**
- Bakoitzak bere postura dauka, nik denen postura errispetatzen dut.
- **Kirolak gustetan zaizkizu?**
- Bai.
- **Taugresaren gainean zer daukazu esateko?**
- Oso talde handia dauka. Gainera etorkizunari begira esan dezakegu etorkizun handia daukala demostratu duela.
- **Zer izango litzateke zuretako erregalu on bat?**
- Negozioa orain dabilen moduan jarraitzea erregalu ona izango litzateke..

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur Etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: J. Inaxio Garro **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Güemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. E.
Tirada: 2.500 ale. Aretxagazeta paper Ekologikoan egiten da.

Aste Santuan ze egiteko asmoa daukazu?



Isidro Vicente
(Langilea)

Urtero norabaitera joaten gara. Baina aurren ez dugu ezer pentsatu. Beharbada norabaitera joango gara.



Victoriano Martinez
(Langilea)

Hemen geratuko naiz. Beharbada egun batean Errioxara joango gara, baina ez dut uste.



Izaskun Antxia
(Langilea)

Ez dut inora joateko asmorik. Dirua aurreratu behar da, beraz ezin naiz inora joan.



Mariasun Gutierrez
(Irakaslea)

Landasetara joateko asmoa dut, azkenengo bitartetan bertara joan naiz.

KARTAK

Hilerria

Kanposantua haunditzearen inagurazio eguna gerturatzen dabilela eta, ezin izan diot proiektu hasi zenetik gauzatu arteko joan-etorriak berrikus-teko gogoari etsi.

Hau ez da Udalari eta bertako errektoreen alde goraiamenak botatzea eta gutxiago berriro lan munitzipleatan parte hartzen dudanean. Gure hildakoei ematen diegun tratuari eta daukagun harremani buruz nire iritzia ematea da.

Alde berriaren diseinuan garbi ikusten bada ere, asmoa funtzionalitate haundiena lortzea zen, kontutan izan genuen heriotzaz eta hildakoez erlazioatutako gaietan ez dugula buruarekin arrazontzen. Bihotzarekin pentsa-

tzen dugu. Hori dela eta, gure familiarterako hildakoen hondarrak, afektiboki ikusten ditugunez, hilerrian euren estantzia luzatzera eramaten gaitu. Nahiz eta edonork jakin han ez dagoela arimarik, hondarrak baizik.

Horrela, sarreren nitxo eta gainerako funtzionalitatez gain, bi hezurtegi haundi eta 84 hezurtegi individual erai ki dira. Bertan estantzia hori luzatzeko nitxo edo enterramenduaren tenporaleku utziz amaitzen denerako, horrek hildakoen gure kulto partikularra ere luzatuko du.

Alde zaharreko eraberritzeak eta bere kontserbazio egokiak eta baita lan horiek egiteko izaera finkoarekin operario

munizipal baten kontratazioak ere, estantzia hori gaitzeko (duintzeko) balioko du.

Baina nere iritziez jardun behar nuela esan dut eta orokortasunean ari naiz. Segundotxo bat. Zera esaten ari nintzen: administrazioa bere partea betetzen ari dela hildakoen atentzioan. Nahiz eta Foru Aldundiak agindutako dirulaguntza guztiak heldu ez.

Astean zehar, obrak bisitatzean, ikusi dut zenbait pertsona, edadetuak batez ere, lora eramateaz eta gizaki maiteen hilobi ondoko belar txarren bat kentzeaz arduratzen. Gehiago ikusi ditut asteburuetan.

Baina gure hildakoen kulto horrek familia batek

hilarri on batean (10 urterako) edo lora sorta eder batean (egun batzuetarako) diru asko gastatzea justifikatzen duela nahiko erlatibo da. Baliogarria da, kasu askotan, gastuaren nabarmentasuna egiten den bitartean. Eta bestela, epaitu bizien arteko elkarrizketa bat, taberna batean entzundakoa. Zera komentatzen zuten: Udalak zenbait zerbitzu funerarioetarako tasa berriak jarri zituela. Hori etako bat oso argi mintzatu zen: "Horixe bakarrik falta genuen gainera ordaindu behar izatea!". Hemen bukatzen dut, autore sakonagoak parafraseatuz: "Zein bakarrik gertatzen diren hildakok".

Miguel A. Delgado



Ortzadar taldeko hogeita hamabost ume Abaltzisketara joan ziren asteburua pasatzera hainbat monitoreren laguntzaz. Erretratuan ikusten denez, egun bi onak pasatu zituzten umeek, baita monitoreek ere.

Oharra:

Ohar honen bidez, Loramendi Kultur Elkarteak joan den martxoaren 6an herrian izan genuen Maskarada ikuskizunari buruz hauxe adierazi gura dio Aretxabaletako herriari.

Zorionak eman gura dizkiogu bai barrikadetan zein arratsaldean parte hartu zuten ikusle zein antonatzailerik laguntzaileei. Gure iritzirako jende ugari hartu zuen parte eguraldiak giroa kaxkartu bazuen ere eta hori pozgarria da oso. Bestalde, jakitun gara Maskaradako zenbait pertsoniak ezustea sortu eta behar bada jokabideetan ez zirela behar zen moduan ibili. Horregatik, norbaiten sentsibilitatean gogo txarra sortu bazuten, barkamena eskatzen diogu lagun horri Loramendi Kultur Elkartearen izenean.

Bukatzeko besterik ez, era honetako ospakizunak denon partehartzearekin posible egiten ditugula gogoratu, mila esker denoi.

LORAMENDI KULTUR ELKARTEA



**Gipuzkoako
Foru Aldundiak
Diruz lagundutako
aldizkaria**



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**



**ANGELINES
Autozerbitzua**

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42



NOVEDADES
FELI
MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABALETA



Soinu tresnen erakusketa

Aretxabaletako Udal Kultura Batzordeak eta Kutxa Fundazioak Euskal Herriko Soinu Tresnak izeneko erakusketa antolatu dute.

Erakusketa horrek apirilaren 11tik 17ra arte iraungo du eta udaletxeko

ganbaran izango da, aste-gunetan 6etatik 8ak arte eta asteburuetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

Erakusketa Txomin Altuberena da.

Bertan besteak beste, alboka, txalaparta, adarra,

tobera, xilofona ... ikusi ahal izango ditugu.

Erakusketa horretan aintzinako tresna ugari ikusi dezakegu, eta denak Euskal Herrikoak gainera.

Beraz badakizue, aprobetxatu aukera.

□ Atxabaldiren bizi diren 1977ko urtarri-laren 1etik abenduaren 31ra bitartean jaiotako mutilek, 1996ko soldadutza txandarako izena eman beharko dute. Hori dela eta, udaletxeko bulegoetan azaldu beharko dute, ekainaren 24a baino lehen (aurrerapena eskatu behar dutenek, apirilaren 25a baino lehen), N.A.N.ren fotokopia biaz.

□ Ertzaintzak adierazi digenez, Mondragoe inguruan hamar milako hiru bilete faltsu agertu dira. Oraindik, ez dute topatu erantzulea, beraz kontuz. Hamar milakoak fotokopiak dira eta numerazio bera dute.



Atxabaltan hainbat intsumisoren epaiketa zela eta joan zen astean Andoni Urzelai eta Felix Iñurrategiren epaiketetan jende ugari elkartu zen epaitegi aurrean, argazkian ikusi daitekeenez. Akordatu aste honetan Julen Larrinaga eta Joan Ander Loidi epaitu dituztela. Eta aurrerantzean epaiketa gehiago izango ditugu: Igotz Urzelai, Alberto Etxabe...

U.D.An zuzendaritza aldaketa

Azken Batzar orokorrean erabakitakoaren arabera, eta UDako estatutuekin bat etorritik, datozen bi urterako izango den Zuzendaritza Batzorde barrirako kandidaturen izenemate epea zabalik dago.

Oraingo zuzendari-tzak, ohar batzuk egin ditu:

- Azken Batzar orokorrean, hautagairik ez zegoenez, beste urte betez jarraitzea onartu genuen. Dena dela, garbi esan genuen hau izango zela azken urtea.

- Hautagairik ez balego, denboraldi amaierako ohizko Batzar Orokorrean bilatuko litzateke horri aurre egiteko irtenbidea.

Izena emateko 10 zenbakidun posta kutxatilara zuzendu behar duzue.

Herri irratia

Herri irratia, herri aldizkariaren programa egiten dabil. Aretxagazetak ere bere tartetxoak dauka, martizenetan 10,50 inguruan. Joan zen martizenean aurkezpena izan zen.

Orain, Aretxagazeta aldizkariako edukien berri izateko beste modu bat duzue.

Intsumisioa

Felix Iñurrategi martxoaren 8an epaitu zuten.

Martxoaren 6an jaso zuten epailearen sententzia.

Bertan hiru hilabetezko kartzela zigorra ezarri zioten. Orain fiskalak errekurritu egin du, urtebete inguruko zigorra eskatuz.

Ludoteka

Aste Santu osteko astean, apirilaren 2tik 9ra arte, umeentzako Ludoteka zabalduko da.

Ludoteka goizetan 10etatik 1ak arte egongo da zabalik eta arratsaldetan 3retatik 6ak arte.

Informazio gehiago Kultur Etxean edo 79 01 05 telefonoan.

**MATIKUA
TABERNA**


Azatza auzoa
☎ 79 16 68

ARETXABALETA

**IOSU
URDAITEGIA**

Mitarte, 1

EGUZKIGRAF



**Aldizkariak
Inpresok
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industr. F-0 • Telf. 791844 - Faxa 792941



Aretxagazetaren aurtengo Batzar Orokorra

Aretxagazetaren Batzar Orokorra

Joan zen eguakotxean Aretxagazetaren Batzar Orokorra izan genuen udaletxeko pleno aretoan.

Bertan 1993 urteko memoria eta balantze ekonomikoa egin zen. Gero, 1994ko asmoak eta aurrekontuen aur-

kezpena egin zen.

Horretaz gain, lau kargu aldaketa ere egin ziren, Jokin Antxiak (Zuzendaria), Inma Migelek, Jon Sarasuak eta Jon Antxiak, euren karguak honako hauei utzi dizkiete: Inaxio Garro, Nati Abasolo eta

Marta Madinabeitiari. Horiekin batera joan zen urtetik jarraituko dute Mirian Txintxurretak, Iñigo San Juanek, Rosa Mari Uriartek eta Jon Iñaki Izarzelaiak. Batzuen etorrera eta bes-teen aldegitza ospatzeko afaria egin zen.

Hezibideren Batzar Berezia

Batzar Bereziakin jarraituz, oraingo hone-tan Hezibideri tokatu zaio.

Hezibidek joan zen eguaztenean, hilak 23an egin zuen urteroko Ohi-zko Batzar Berezia, arratsaldeko betan.

Batzar berezian honako gai hauek aztertu ziren:

- Aurreko Batzar Nagusiko aktaren berrespena.

- 1993 urteari dago-kion txostenaren aurkezpena eta azalpena.

- 1994ko gestio planaren aurkezpena eta onarpena.

- Eta azkenerik, bukatzeko galderak eta erantzunak.



Arrantzarako epea zabalik dago.

Hori egia dela egiazta-tzeko, asteburuan Urkulura joatea besterik ez zegoen. Han ikusi ahal izan genituen, negusiak eta umeak, euren afizioaz gozaten.

Hiru handiak hiru egunetan

Aretxabaletako Loramendi Kultur Elkar-
tea, Murruxio, Arrasa-
teko Gazte mobidie eta
Orkatz Taldea, Berga-
rako Jardun, Eskoria-
tzako Axtroki eta Men-
di taldea eta Gatzagako
Pagedar Euskal Tal-
dea dira hiru egunetan

hiru handiak ibilaldia
antolatu dutenak. Anto-
latzaileek 16 eta 24 urte
bitarteko gazteendako
antolatu dute ibilaldia.

Urteera apirilaren
7an izango da goizeko
8etan Arrasatetik eta
ondoren Atxabaltatik
eta gainontzeko herrie-

tatik pasatuko da auto-
busa. Buelta 9an izango
da gabeko 8etan. Bakoi-
tzak bere kubiertoak, fra-
telak eta basoa eraman
beharko ditu. Bi motxila
eroatea gomendatzen da,
baten eskuko gauzak
eroateko eta bestean gai-
nontzekoak.

Lehenengo egu-
neko bazkaria norbe-
rak eroan beharko du
eta beste guztiak, anto-
lakuntzak prestatuko
ditu. Lehenengo gaba,
Gatzagan egingo dute
partehartzaileek eta bi-
garrena Urkiolako ater-
petxean.



Anton Arbulu Diputatua, herriko zinegotzi batzuekin

Kanposantu barriaren inaugurazioa

Joan zen eguako-
eguerdiko
12,30etan kanposantu
barria inauguratu zen.
Bertan Anton Arbulu
Hirigintzako Diputatua
izan genuen.

Obra horiek 90 mi-

lioiko kostua izan dute.
Kanposantu barriak 272
nitxo ditu, 24 hilobi eta
hezurtegi txiki batzuk
ere bai. Lurraren egoera
dela eta maila bitan egin
dute proiektua.

Nitxo gehienak ha-

sierako mailan ipini di-
tuzte, baita zerbitzu lo-
kalak, 24 hilobi, jardinak
eta iturria ere. Hurrengo
mailan beste nitxo guz-
tiak agertzen dira.

Kanposantura auto-
mobilez hobeto joan ahal

izateko errepidea
konpondu dute eta
aparkaleku gehiago
ipini dituzte. Gainera,
errepide inguruan lo-
rategia ipini dute eta
bertako arbolak landa-
tu dituzte.



Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea Atxabaltan

Datoren zapatuan, hilak 26, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek hileroko ohizko batzarra Otxaloran egingo du. Jose Luis Errasti atxabaltarra, Gipuzkoako ordezkaria izango da eta anfitrioi lanetan ibiliko da.

Aurreko bilera Hondarrabian egin bazuten, eta aurrekoaren aurrekoa Hernanin, oraingoan Jose Luis Errasti atxabaltarrari heldu zai-
o anfitrioi lanak egitea.

Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen helburua Euskal Herrian abesbatzen musika indartzea da. Hori gauzatu ahal izateko, ez-ira-

bazizko Kultur Elkartearen izaeraz eratu zen. Gaur egun, Abesbatzen Elkartea Herrialde guztietako 275 koruk osatzen dute:

- Arabako Abesbatzen Elkartea
- Bizkaiko Abesbatzen Elkartea
- Gipuzkoako Abesbatzen Elkartea
- Iparraldeko Abesbatzen Elkartea
- Nafarroako Abesbatzen Elkartea

Aitaturako Euskal Herriko Elkartek 12.000 lagunek osatzen dute.

Elkarte honen diru-iturririk handiena, bakarra ez esatearren, Eusko

Jaurilaritzako Kultur Departamentua da (18 milioi pta. 1993an),

Gehiegitxo dela dirudi arren, Jose Luis Errastiren esanetan ez du hainbesteko ematen: ikastaroak, Kantuz izeneko buletina, munduko hainbat abesbatza eta Elkarterekin dituzten harremanak, edizioak, etabar. Hor doakie diru-kopururik zabale-
na.

Besterik, urte askotan Atxabaltako Abesbatzaren Lehendakari izandako Jose Luisek ez du ikusten Gipuzkoako ordekaritzan zeinek hartu dezakeen bere tokia eta bere lana.

□ Basotxo Jubilatuen Elklarteak, oraindik 1994ko urteko karnetak barriztu ez dutenendako, epea datorren maiatzak 31ra arte luzatu dela adierazi gura du. Karneta gaurkotu ahal izateko, aurtengo kuota ordaindu beharko dute epe horretan edozein egun eta ordutan.

□ Apirilerako Atxabaltako Udal Kultura Batzordeak ekintza bereziak antolatu ditu. Apirilaren 20an pailazoak izango dira Zariaia zinean, arratsaldeko 3retan. Bizkor, Koxkor eta enpresari jauna. 22an Taum Taum antzerki taldearekin txontxon-giloak izango ditugu helduendako, gabeko 10etan Zariaia zinean, obraren izena: Taum Taum Show.



Juan Mari Uzkudun Copreciko jereenteak Urteko Enpresariaren saria jaso du

Juan Mari Uzkudun, Copreci-ko jereenteak, 50 urte ditu, donostiarra da eta injeneritza industrialara ikasi zuen. Duela 25 urte Donostiatik Arrasatera etorri zen Fagor kooperatiban lan egitera. Azken lau urte hauetan Copreci enpresako zuzendaritza daroa, bera dugu Copreciko jereentea.

Azken egunetan Copreci eta Juan M^o Uzkudunen izena oso entzuna egin zaigu, "Gipuzkoako Camara de Comercio" delakoak, **Urteko enpresaria** izeneko saria berari eman diolako. Hori dela

eta, Uzkudunengana zuzendu gara Atxabaltan daukagun Copreci kooperatibaren gainean zenbat datu jakin guran.

• Sari bat jaso berri duzu, ze suposatzen du sari horrek?

Saria jasotzeko izendatua ni neu izan banaiz ere, jakin badakit enpresariarik ez dagoela enpresa osoa atzean ez badago, beraz uste dut sari honekin nolabait Copreci osatzen dugun lagun guztion ahalegin eta lana saritzen dela. Era berean, sari honen atzean aldaketa baten aztarna dago, une txarretatik une

Saritua ni neu izan banaiz ere, saria langile guztion lanari esker jaso ahal izan dugu.

hobeago bateranzko bidea.

• Zer egiten da Coprecin?

Elektrogailu fabrikarientzako mota desberdinetako osagailuak egiten ditugu. Azken produktuan (sukalde, garbigailu..) sartzen diren osagailu mekaniko zein elektromekanikoak hain zuzen ere. Gaur egun 850 langile gaude, iaz baino ehun gehiago.

Guk Coprecin batez ere esportazioarekin lan egiten dugu, iaz 8.800 miloi saldu genituen eta %67a esportatu genuen. Esportatzeko orduan batez ere lau herrialderekin lan egiten dugu; Alemania, Frantzia,

Urlatik

1994ko martxoak 24

• Gatzagako berriak •

8. zenb.



**Gatzagako sorgin
famatuenak**

Dorletako txirrindulari eskolaren 1994ko denborandirako aurkezpena



Otsailak 26an ireki zen 1.994/95 txirrindulari denboraldia, eta ohitura denez Txirrindulari Eskola osatzen duten partaideak Dorletako Santutegian bildu ziren helburu horrekin.

Jardunaldiari hasiera emateko Mesa Santua ospatu zen Santutegian, ondoren kategoria ezberdinetako taldeei argazkiak egin zieten.

Geroago eta Gure-Ametsa Jatetxean denboraldiko aurkezpen ofiziala egin zen, laguntzaileei eskerrak emanaz eta plakak banatuz bukaera eman zitzaion ekitaldiari.

Jarraian txirrindulari, zuzendari, arduradun eta gainontzekoek luntxa izan zuten aurkezpena ospatzeko.

Dorletako Amaren Txirrindulari Eskola 41 gaztek osatzen dute, adinaka

kategoria ezberdinetan banatuta, talde bakoitzak bere zuzendari eta babestaile duelarik.

Denboraldia ilusioz beteta aurkeztu da, lasterraldi askotan parte hartzeko asmoarekin eta ahal diren garaipen guztiak lortzeko asmoz.

Hemendik munduko zorte osoa opa dizuegu, ANIMO!!!

▼ Urlatik ▼

Argitaratzailea: Pagedar Elkarte Kultur etxea, Gatzaga. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. E. **Tirada:** 600 ale. Urlatik paper Birziklatuan egiten da.

Emakumearen eguna ospatzeko, aurtengo emakumeen bazkaria

Joan zen martxoaren 5ean, urteroko emakumeen bazkaria ospatu genuen emakume gatzagatarrak. Aurtengoa, seigarrena izan da eta, gero ta partizipazio ugariagoa daukagula azpimarratu behar da, maiz eta lau edo bost "inkondizionalak" ezin izan zutela etorri.

Maixa eta Ixabel trilkilariak, nahiz eta orain "fama bidean" egon, pozik etorri ziren. Hau gurekin betetzen duten seigarren urtea zen. Mila esker.

Badakigu, Gatzagako hiru etxeetako gizonak harrিতa geratu zirela, argazkian ikusi dezakezuen bezela, etxeko andria izuzki edo eskoba haundi batekin etxera sartzen ikusterakoan. "Zer demontre egingo dute "akelarren hortan" gero holaxe bueltatzeko?" Ai ama hau ikustekoa!!!

Baina gure herriko gizonak lasai egon daitezke, aspektu hontan behintzat, Gatzagako emakumeek izuzki bat hartzen dutenean hegaz bidaitxo bat egiteko besterik ez da eta.

Hurrego urterarte izuzkiak aparkatuko ditugu, baina kontuz gizonak, ondo engrasauta mantenduko ditugu eta.

SORGINAK



Leintz Gatzagako komunikabideak



Aspaldikoa da bai, gure bailarako komunikabideen kontua. 70. hamarkadan egin zen autopistaren lehenengo proiektua eta lozoroan erori zen hurrengo urteeran, orain komunikabideen arazoa berriz planteatzen da gure bailaran, eta arazo honek eragin zuzena du gure herriarengan.

Alternatibak aztertzeko eta herritarren eritziak jasotzeko asmoz, joan zen urteko udazkenean aurkeztu ziren Interbentziorako Gune Partizipatiboak, konkretuki eta Gatzagan IGPre

aurkezpena egin zenean bertaratutako bizilagunek iniziatiba horretan parte hartzea erabaki zuten.

Horrela eratu zen "GATZA ETA LANDAKO BIZILAGUNEN ARTEKO KOMISIOA" arazoaren aurrean planteamendu propioak egiteko. Gaur guzti honi buruz hitzegiteko, aipatutako komisioko partaidea den Eusebio Villar ekarri dugu orrialde hauetara.

U.- Zergaitik sortu zen Komisioa?

E.V.- I.G.Paren aurkezpenearen ondoren ikusi genuen beharrezkoa zela Gatzagatarren eritziak bertan azaltzea eta horrela gure planteamenduak lantzea erabaki genuen.

Kontutan hartu behar dugu aurreko Errepide Plana zela eta Udala eta Diputazioaren artean 6-7 alternatiba landu zituztela eta azkenean haietako bati eman ziotela lehentasuna. Ondoren Errepide Plana aldatu egin da eta bertan ez da jasoten

alternatiba hura, autopista bat egitearena baizik.

U.- Zein da Komisioak planteatzen duen soluzioa?

E.V.- Hasieran gaur egun "errepide berria" izenarekin ezagutzen duguna desdoblatzea zen gure postura, baina Diputazioko teknikariek eta guk kontratatutako teknikariak ere, soluzio hori, hainbat arazo teknikoengaitik, ez zela posible esan ziguten, hau da ezinezkoa da gaur egungo errepidea konpondu, zuzendu eta desdoblatu. Beraz beste bide bat zabaldu beharko zen gaur egungo errepidearen gainetik.

Komisioak, errepide berri horrek bi karril eta beste bi aurreratzeko euki beharko zuela, uste du eta horrela planteatzen du, guztira zabaleran 17 metro hartuko luke, kontutan hartu beharko da Autobide batek 23 metro zabalera behar duela eta Autopistak 34 metro.

Komisioaren planteamentuan errepide berriak Dorletatik herriarekin enpalmatuko zuen horrela herriari irtenbideak eskeiniz.

U.- Dena den Komisioak bailara osorako planteamendua egiten du ezta?

E.V.- Arlabannerako planteatzen dugun soluzioa bailara osoan adaptagarria da. Beti ere proposatzen dugu kurtziak nibel ezberdinetan egitea eta tunelak hainbat



lekutan adibidez, Landa zeharkatzeko harrobi zarretik tunela egitea proposatzen dugu, baita ere Soraluzen. Bestalde desdoblamentuak eta Arrasate eta Bergara artean 4 karril proposatzen ditugu, besteetan barianteak desdoblatu egingo zirelarik.

U.- Zein da Komisioaren jarrera autopistaren aurreran?

E.V.- Arlaban aldean autopista guk planteatutako

errepidearen leku berberatik joango litzateke eta bailara osoan beste errepide bat egitea suposatuko luke, horregatik ez gaude alde beste aspektu batzuk ere kontutan hartu behar direlarik, sarbideak adibidez.

Dena den Komisioak Gatzagako egoera eta geroa defendatu nahi du eta etorkizunerako herriaren akzesibilitadea indartu behar dugula uste dugu.

Bengoerrekako parkea prest guztion gozamenerako



Bengoerrekako parkeari buruz hitzegiterakoan, atzera begiratu bat bota beharra daukagu, bertan bait dago Gatzaga eta Gatzagako gaztetxoaren historia zati bat. Etxeetan ur korronterik ez zegoenean, garai hartako gazteek leku aproposa aurkitzen zuten, bertan dagoen ur saltoa aprobetxatuz, hainbat jolas, bainu eta dutxa naturalak hartzeko; hori da, beti ere uda denbora, gainontzean ur izoztu horrekin pulmonia hartzeko arriskua bait zegoen.

Gure egunetara bueltatuz, orain bost edo sei urte udalak

leku eder horren hondamendiaz jabetu zen eta Mendi Nekazaritza Programa sortua zela aprobetxatuz, bertan kokaturik dagoen zubia konpotzeko aukera ikusi zen, bertan miloi t'erdi pasatxo kostatu zelarik.

Hau konpondu ondoren eta permuta batzuk izan zirela medio, Udala zubi ondoko bi zelairen jabe egin zen. Momentu hortan Egitasmo Orokor bat bideratu zen: Dorletako Santutegia, Gatz-Fabrika, eta ondokoak bergaitzea eta Jolasgune bat, ur saltoak aprobetxatuz,

egiteko.

Foru Aldundiaren baimena jaso ondoren, eta beste lehentasun batzuk jadanik bideratu direla, honi ere heldu zaio garaia.

Zubi ondoko zelaietan bederatzi mahai bere jarlekuekin, iturri, ziburuak eta umeentzako jolas batzu kokatu dira.

Bertaraino dihoan bideskari esidura berezi bat egin zaio eta bestalde San Antoniotik dihoan lehengo bidea zabaldu egin da.

Egindako gauzetan bi miloi t'erdi pezeta gastatu dira



Udalak eskulanaren kostea ordaindu duelarik soilik.

Dudarik gabe Gatzagako

ondare zoragarri bat berreskuratu da, orain gatzagatarrok eta

gainontzekoak posez eta errespetoz erabiltzeko zabalik dute.

Hiru handiak hiru egunetan

Aurten ere AEDko Gazte Mobidiek "3 Haundiak 3 Egunetan" ibilbidea antolatuko du. Horretarako Orkat Scout Taldea, Eskoriatzako M.E., Axtroki, Jardun, Loramendi K.E, Murruxio eta Pagedar taldeen laguntza jasoko dute Gazte Mobidiekoek.

Ibilbidea apirilko 7, 8 eta 9an egingo da. Konkreteki

Gatzagako herriak frontoiko eta elkarteko instalazioak eskeiniko die mendizaleei 7 eta 8aren arteko gaua igaro dezaten.

Ibiltariak, Gatzagatik Urkiolako bidea hartuko dute Gorbeako gailurra lortzeko asmoz.

Izena emateko epea zabalik dago martxoko

25rarte, inskripzioa egiterakoan 3.000 pt ordaindu behar dira.

ANIMA ZAITEZTE

OHARRA:

Pagedar aldizkariak adierazi nahi du, Urlatik aldizkaria nahi duen guztientzat zabalik dagoela. Norbaitek zerbait idatzi nahi badu; gutuna, argazki zaharra... Pagedar Elkarteak atek zabalik dauzkala adierazi nahi du.

Beraz badakizue, zerbait idatzi nahi baduzue, badakizuen nora joan, Pagedar Elkartera. Eskerrikasko.



**GURE AMETSA
JATETXEA**

Ezkontza, euskal sukaldea,
entrepresetako afariak

Tfnoa: 71 49 52

Leintz Gatzaga

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Tfnoa.: 71 46 08

GATZAGAN

**GATZA
GAIN**

JATETXEA

Bertako janari
tipikoetan
espezializatua

Tfnoa: 71 50 77

ARRATE

Taberna

Menestra, bakailu eta txuletoian bereiztuak,
Etxeke postre gozoak.

☎ 71 43 71

LEINTZ GATZAGA

Jose Aranzabal

BIDEOKAMARAK,
TB, HI-FI, BIDEOA,
ELEKTROGAILUAK

SUKALDEKO
ALTZARIAK

ITURRIOTZ, 15

Tfnoa: 79 15 16

Bañez doktorea, 2

Tfnoa: 79 18 92

ARRASATE

Inglaterra eta Italiarekin. Herrialde horietaz gain esportazioaren %10a Hego zein Ipar Amerika, Ekialdeko Herrialdeetara eta Afrikara doa.

• Zu sartu zinenetik ze bilakaera izan du Coprecik?

Gauzak golpean aldatzen ez direnez, gatxa da hau erantzutea. 1989an Copreci enpresa jo eta ke zebilen, baina asmatu barrik, krisi egoera sakon batean murgildurik geunden eta egiten ziren lan eta ahalegin guztiek ez zuten emaitza onik ematen. Nola bait esateko, norabidea bilatu ezinik ibili zen Copreci garai hartan.

Ni sartu nintzenetik aldaketa erabakigarri bi egin

genituen. Batetik gestio sistema barri batzuk ezarri ditugu, hori ezartzean egon den aldaketa handiena kalitatean izan da. Lehen gure produktoen kalitatea, nahiz eta asko saiatu, ez zen gure bezeroek behar zuten adinakoa. Gestio sisteman egin den aldaketaz kalitatea hobetzea lortu dugu. Eta bigarren aldaketa, aldaketa egitea izan zen.

• Zeintzuk dira Copreci moduko enpresa batean faktore inportanteenak?

Nire iritziz kalitatea da faktore inportanteena. Guk Coprecin kalitatearen alde egin genuen apostua. Gure kasuan kalitatearen lagungarria, ezarri dugun gestio prozedura azkarra izan da.

Batzuek kalitatea lortzeko produktibitatea sakrifikatu behar genuela zioten. Gu, barriz, konturatu ginen biak batera egin behar genituela.

Coprecin erabakiak egun batetik bestera hartzen dira, bai kalitate zein produktibitate mailan gaur gertatzen dena, bihar jakiten da eta erabakiak berehala hartzen ditugu. Horrez gain, Copreci sei negozio nagusitan banatu genuen, negozio bakoitzak bere norabidea aukatzen du eta nahiko autonomoak dira, honek enpresari arintasuna ematen dio. Aitatzeko moduko beste datu bat Copreci lau mailatan besterik banatua ez dagoela da; makinako langile batek, departamentuko burua du, honek, barriz, negozioaren ardura duena eta laugarrenik jereentea dago. Enpresa gutxi dira



Copreciko langile bat makina berrian lanean

lau maila besterik dute-nak, normalean gehiago izaten dira. Eta honek guri komunikazio aldetik azkartasun handia ematen digu, gertuago gaude denok.

• **" Vivir al cliente" lema atera zenuten, zein da lema horren esangura?**


Lemarekin adierazi gura genuen, gure antolakuntzan bezeroa oso gauza nagusia izan behar zuela, oso gureganatua, gure mentalitatearen barruan bezeroak sartuta egon behar du. Klientearen ikuspegia, ikusten eta ulertzen saiatu behar dugu.

Duela gutxi enpresa munduko jakitun batek esan zidan kalitatearen arazoa neurri handi batean komunikazioaren arazoa zela, horregatik guk bezeroa eta gure arteko komunikazioa sendotzen eta bizkortzen saiatu gara.

Bestalde lempi buruz esan behar dut, kanpoan ere asko gustatu zaiela.

• **Soldaten igoera ez izatea, enpresak dirua irabazi eta interesak ez ordaintzea, orduak sartu eta ez kobratzea... muga bako solidaritate hau zelan eroaten da?**

Aitatu dituzun gauzak egitea ez dira inoren gustokoak izaten, baina garbi daukat enpresa bideonean jartzeko hau nahi



eta nahiez egin behar dela, ez dago beste biderik. Gainera gure beste enpresa anaiak txarto baldin badoaz, arrazoi gehiagorekin egin behar dugu.

Dena dela, arazo hau beste plano batean jarri behar dugulakoan nago. Gure gizarteak ez du oraindik garbi bere etorkizun bakarria enpresak direla. Jende askok uste du nahiz eta enpresak desagertu biziko ginatekeela, hori ez da horrela. Zenbat eta enpresa sendoagoak izan, orduan eta etorkizun seguroagoa izango dugu, nahiz errentetatik pobregoa izan.

Bide batez, uste dut guk, dena dela, suertea izan dugula, ikusi dugulako ahalegin hori eginda gauzak ataraten direla eta gaur egun 100 gehiago gara.

Solidaritetea beraz enpresaren aldeko ahalegin aldetik gehiago ikusi behar da, ekonomiko aldetik baino.

• **Kalitatea, zerbitzuak eta hobekuntza orokorrean errekonozitzeko errekonoizimendu sistema jarri zenuten martxan, zelako arrakasta izan du?**

Errekonoizimenduak jarri genituenean jendea errekonozitzeko

bakarrik egin genuen, gaurko gizarte baka- rrik negatiboa erreko- nozitzen dugula ikusi- ta, guk sistema honekin positiboa errekonozit- zea gura izan dugu, gero saritzat diru apur bat ematen dugu, oso sin- bolikoa. Orokorrean Coprecin errekonozit- menduen sistema onar- tua izan dela esan de- zaket.

• **Zelan ikusten duzu Copreci etorki- zunari begira MCC barruan?**

Europa mailan da- biltzan kooperatibak bakarrik nekez ibil dai- tezke, hau kontutan izanda MCC proiektua interesgarria izan dai- tekeela uste dut, sekto- reka gure talde edo elkargoa banatzea oso positiboa izan daiteke gure kooperatibaren- tzat.

Proiektu honen ba- rruan enpresak handitu, garatu eta sendotzeko aukera izango dute eta lan horretan Copreciri lidergo antzeko zeozer tokatuko zaio, tamainuz nagusienak garenez, bultzada emateko eran- tzunkizuna izango dugu. Beharbada esfor- tzu edo ahalegin han- diagoa suposatuko du baina ziur gaude Copre- ciren mesederako izan- go dela.



Barrero K-2ra

Joan zen urtean K-2tik heldu bezain laster, aurten ere Inñurategi anaiak bertara bueltatuko zirela entzun genuen.

Azkenik notizia egia bihurtu da, Inñurategi anaiak, Juanito Oiarzabal eta Kike de Pablo sen laguntzarekin k-2ra doaz.

Maiatzaren 9an urtengo dute Felix eta Kikek Pakistanen antolaketa lanak egiteko eta Albertok eta Juanitok 4 egun beranduago. San Ignazio inguruan buel-

tatuko dira.

Maiatzaren 25-30ean beheko kanpamentura heltzea espero dute. Mendiko lana ekainean egingo dute eta tontorrerako lanak ekaina bukaeran eta uztail hasieran egingo dituzte.

Pakistan aldetik joango dira, eurek K-2ko bide normaltzat kontsideratzen den baimena dute, baina asmoa zerbait interesgarria egitea dute. Felixek dioenez, "hara heltzen garenean ikusiko dugu ze bide hartuko dugun?"

K-2ra barrero zergatik galdetu diogu Felixi. "Juanito Oiarzabel orain urte bi eskuratutako baimen bat zeukan eta taldea osatzeko guri deitu zigun. Momentu hartan hau guztia konpromezu barik geratu zen. K-2ko bueltan inbitazioak aurrera jarraitzen zuen eta aprobetxatu egin dugu. Gainera joan zen urtean gailurra lortu bagenu, beharbada ez ginatete joango. Baina pendiante gelditu zitzaigun gauza bat izan zen."

Ramon Jausoro

atxabaltarrak, joan zen astean Zumaiako krosa irabazi zuen. Kross honetan 700 korrikalari inguruk parte hartu zuten. Ramonek lasterketa polita egin zuen, Carlos Ayala mexikarra eta Cesar Pérez donostiarra atzean utzi ondoren, 31' eta 15"-ko denboraz lortu zuen garaipena.

Ramonek 12 segundurengatik ez zuen lasterketako errekorra lortu.

Dorletako Ama

eskolako txirrindulariek dagoeneko hasi dute urtengo denboraldia. Joan zen asteburuan lehen mailako kadeteek, lehen eta bigarren mailakojubenilek eta bigarren mailako kadeteek lasterketa desberdinak izan zituzten, Eibar, Azpeitia eta Lazkaon. Dorletako txirrindulari guztiek lasterketak bukatu ahal izan zituzten eta oraingoan garaipena lortu ez badute ere, ziur gaude hurrengo batean ailegatu direla.

▲ **Hurrengo Aretxagazetan notizia hau askoz zabalago aurkeztuko dugu. Honako hau aurrerapena besterik ez da, hurrengo zenbakian, proiektuaren barri zabala eskainiko dizuegu.**



Ibon eta Unai, Gipuzkoako finala jokatuko duten pilotariak

Errasti anaiak Gipuzkoako finala jokaketako gertu

Ibon eta Unai Errasti anaiak afizionatu mailako Gipuzkoako kopako finala jokatuko dute martxoaren 27an. Finalean, Segurako Ar-

tola eta Etxebarria bikotea izango dute aurrean.

• **Ze maila ikusi duzue txapelketan zehar?**

Nahiko maila ona

egonda txapelketan, jendea gero eta hobeto prestatuta dago, hau dela eta urtero gatzagoa da finalera heltzea.

• **Finalari begira zeintzuk dira zuen asmoak?**

Irabaztea, jakina. Dena dela, zaila izango da, gu geure joko egiten saiatuko gara.

• **Ze teknika erabili behar duzue?**

Aurrelaria aurrera eroaten eta atzelaria engainatzen ahaleginduko gara, azken finean bikotea mugitzen partidua kontrolatu ahal izateko.

• **Zelan ikusten duzue profesionaletarako saltoa?**

Orain ofizionatu mailan pentsatu behar dugu, gauden mailan eta ez profesionaletan.

Professional mailara saltoa egin ala ez, ordua helden zaigunean pentsatuko dugu.



Euskal Herriko Itzulia

Euskal Herriko Itzulia apirilaren 4tik 8ra bitartean egingo da. Aurtengo edizioan, 868 ki-

lometro izango du itzulia eta Mondragoen hasiko da. Arrasaten hasi eta lau egun Euskadiko

errepideetan zehar ibili ondoren Azpeitian bukatuko da. Hogeitaldetik 13 talde atzerritarrak izango dira, guztira 160 txirrindulari izango ditugu. Bestek beste, antolatzaileek Rominger eta Indurainen parte hartzea ziurtatu dute, Indurainena eguraldiak laguntzen badu, baina Euskal Herriko Itzulian ia beti eguraldi txarra egiten duenez azkenerarte zalantzan

izango da. Ziurtzat ostera Asier Guenetxea Atxabaltako txirrindulariaren parte hartzea jo dezakegu. Zorte on Asier!

Atxabaltatik Euskal Herriko Itzulia, apirilaren 4an, lehen etapen pasatuko da. Lehen etapa, Arrasate-Arrasate, 117km ditu eta birritan igaroko dira txirrindulariak Atxabaltatik, arratsaldeko ordubiak inguruan eta hiru terdiak aldera.

1 946. urtean, U.D.A. sor tu zenean, gerra osteko Aretxabaletako Kultur basamortuaren bide txiki batzuk jorratzen hasi ziren: Futbola, Mendizaleak... Hamar urte berandugo, 1956. urtean, U.D.A.ko direktibakoei lasterketa bat antolatzea bururatu zitzairen. Bertan, herriko hainbat gaztek parte hartu zuen, eta beraien artean jaendarra izan arren Gaztanaduiako baserri batean bizi zen Fernando Aguilar, eta Zamorako Moraleja del Vino-tik lanera etorri berri ziren Mantecanaiak. Lasterketa Adolfo Manteca-k irabazi zuen.

Inguruko beste ekitaldi askotan parte hartu zuten, Adolfo eta Belisario Manteca-k Aguilar-ekin batera, hala nola, Leintz Gatzagan, Zumarragan, Eibarren, Bergaran, etab...

1960. urtean sortzen dute U.D.A.ko Atletismo saila, eta lehen aipaturiko taldea aukeratu izan zen Españiako txapelketan parte har-



tzeko. Bertan, Fernando Aguilar-ek irabazi zuen. Taldeka, Gipuzkoa eta Españiako txapelketan gelditu ziren. Garai hartan Elola Olaso falangista famatua zen Españiako Kirol Zuzendaria.

Mantecanaien jarduera atletikoa aipagarria izan zen. Belisario Manteca-k, Toledon irabazi zuen militar txapelketan. Adolfok, berriz, Arabako txapelketa atera zuen eta Kanpetzun

irabazi ondoren Nazioarteko Krosean parte hartzeko aukeratu izan zen, baina lesio baten ondorioz ez zuen joatearik izan.

Harrapatu balituzte gaur egungo atletek dituzten material eta aukerak! Garai hartan entrenamenduak norberaren kontura egiten zituen, inongo laguntza barik. Adolfok izan zituen lehengo zapatilak, Lezama Jaunak erregalatu

zizkion eta lasterka egiteko oinetako konpontzaileak horrelako taku batzuk josten ei zizkion.

Argazkian, (ezkerretik hasita) **Fernando Aguilar, Adolfo Manteca eta Belisario Manteca**. Argazkilaria, Ladis ezaguna izan zen eta Ibarra zelaian aterata dago 1960. urtean.

*A. Antxia
I. Urreta*

Aldaketak etxean



J.J. Aretxaga

Aldaketak izan dira Aretxagazetan. Urtero zuzendaritza taldeko erdia aldatu behar dela eta, bi urteko lanaren ondoren, utzi egin gaituzte **Jokin Antxia** zuzendariak, **Inma Migel** diruzainak, **Jon Antxia** idazkariak eta **Jon Sarasua** adjuntuak. Aretxagazetako batzordean hiru lagun barri sartu dira: **Nati Abasolo**, **Marta Madina-beitia** eta lehen egondako **Inaxio Garro**. Gainera, Loramendi elkarteak izendatuko duen beste pertsona bat ere sartuko da. Barri hauekin eta lehendik gelditutako zaharrekin, honela geldituko da kupulia: Inaxio lehendakari, Nati lehendakariorde, Marta diruzain eta **Mirian Txintxurreta** idazkari. Ikusiko dugu barri hauek botatzen nauten ala ez.

Edozein modutan ere nik beti jarraituko dut insumisoak aipatzen. Eguazten hone-

tan epaitu dute **Jon Ander Loidi** Donostian. Badakizue **Felix Iñurrategiri** hiru hilabeteko kartzela bota diotela, baina fiskalak errekurritu egingo du, betiko moduan urtebete eta piku eskatuz. **Andoni Urzelai** ere epaitu dute martxoan eta orain bere anaia **Igotz** ere epaituko dute. Bi anaia, hori dok eta. **Alberto Etxaberi** ere epaiketa egingo ei diote maiatzean.

Beste barritasun batzuk ere izan dira herrian. Eskola Politeknikoan kantina zabaldu dute, eta **Naiara Azkoitia** izango da kantinera. Buelatxo bat igual egingo diot. Kiroletan ere albiste onak heldu dira. **Ramon Jausoro** korrikalariak Zumaiako krosa irabazi zuen. **Errasti anaiak**, Ibon eta Unai, Gipuzkoako pelota txapelketako finalerako klasifikatu dira.

Baina badira irabazteko egon eta irabazi ez dutenak ere. Kristona pasatu zen lehengoan atxabaltarrentzat. Eibarko bizikleta sarian **Ibon Sastre** eta **Jose Anjel San Migel** atxabaltarrak hanka eginda zihoazen beste bi lagunekin. Momentu horretan ertzainek karrera bertan behara utzi zuten. Suerte txarra.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



SARIA: k-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

**Ze izen du argazkian ageri den
baserriak?**

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

▼ Aurreko zenbakiko erantzuna: Leizalde baserria.

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea Jenny Alberdi Ferreiro. **Zorionak.**

Erantzuna:.....

Izen-abizenak:

Helbidea:.....

Tfnoa:.....

26 ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman "Las locas aventuras de Robin Hoock" filmea.

27 DOMEKA

- Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera: Gaztetxoan akanpada.
- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Aitzko**

1 EGUAKOTXA

- Arratsaldeko 4,30etan eta 7retan, "El retorno de las brujas" filmea.
- Zaraia Mendi Taldearen urteera **be-
rezia**.

2 ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman "Aladi-

no" filmea.

3 DOMEKA

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta-Landa-Ozaeta-Eredia-Salbatierra-Eredia-Ozaeta-Landa-Aretxabaleta. (79 Km)**

- Arratsaldeko 4,30etan eta 7retan "Aladino" filmea, Zaraia zineman.

9 ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman "Kika" filmea.

10 DOMEKA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Akaitzera**

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta-Oñati-Udana-zumarraga-Aispurutzu-Zumarraga-Oñati-Aretxabaleta. (76 Km)**

- Futbol partidua: **U.D.A-Eskoriatza K.E.**

- Arratsaldeko 4retan "Las Tortugas Ninja III" eta 7retan "Kika" filmeak Zaraia zine-
man.

11 ASTELEHENA

- Aste osoan zehar **Euskal Herriko tres-
nen** erakusketa Udale-
txeko Ganbara.

16 ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman "Blan-
co humano" filmea.

17 DOMEKA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Le-
gaidera**.

- Zaraia Mendi Tal-
dearen urteera: **Aldabe-
ra**.

- Zikloturisten ur-
teera: **Aretxabaleta-
Oñati-Udana-Astiria-
Zerain-Segura-Bea-
sain-Zumarraga-Des-
karga-Bergara-Are-
txabaleta. (88 Km)**

- Arratsaldeko 4,30etan "La sombra del lobo" eta 7retan "Blanco Humano" fil-
meak.

20 EGUAZTENA

- Arratsaldeko 3re-
tan Zaraia zineman
pailazoak: **Bizkor,
Koxkor eta empresari
jauna**.

Representaciones
ARTISTICAS
RAFA GOMEZ





CORONACION. 1 - 4º Izda.
(945) 22 93 28 - 01012 VITORIA

SEAT
 
**GARAJE
 OSKAR**
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN
 MANTEKA
 ANAIK

**BASABE
 JATETXEA**
 Menu eta afariak
 industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 07 94
 79 91 84

ITURGINTZA

 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

ARLUTZ
TABERNA
 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34


**HAIZEA
 AKEITEGIA**
 Mitarte Kalea, Z/G
 Tfnoa: 79 85 57

GUREA
 TABERNA-
 JATETXEA
 Durana Kalea
 Tfnoa: 79 20 64

**JAUREGI
 OKINDEGIA
 (Panaderia)**
 Otalora, 10
 ☎ 79 57 47


MAPFRE
 Aseguroak
 Errekabarren, 3
 Tfnoa: 77 11 76

**DORLETA
 TABERNA**
 Loramendi, 10
 ☎ 79 94 15

ZIRT - ZART

ESTILISTAK

Ordutegi intentsiboa:

10etatik 6,30ak arte

*Orain, 25 urte beherakoentzat prezio bereziak daude.
 Txartela debalde har dezakezue bertan.
 Prezio interesgarriak!*

Gorbea Kalea, 2

☎ : 77 09 44

Zure hipoteka zaharrari
ordezkoa heldu zaio.

Hipoteka Berria %9,75ean*



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA